

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ARRANTZAKO PRODUKTUEN HARRERA ETA TRAZABILITATEA	Iraupena	70
		Espezifikoa	
Kodea	UF0824		
Lanbide-arloa	ITSAS ETA ARRANTZA-JARDUERAK		
Lanbide-eremua	Arrantza eta nabigazioa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Lonjen antolamendua	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Lonjako produktuen kontrola	Iraupena	140
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Arrantzako produktuen kondizio legal eta higieniko-sanitarioen egiaztapena	Iraupena	70

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UF0289_3ko LB1 lanbide-burutzapenarekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Produktua hartzea, haren trazabilitatea bermatzeko behar diren dokumentu guztiak betez eta izapidetuz.

- EI1.1 Lonjan hartutako arrantza-produktuen jatorria eta norakoa kontrolatzen dituzten dokumentuak identifikatzea, araudiaren arabera.
- EI1.2 Produktuaren trazabilitatea bermatzeko, aurreko dokumentuak nola betetzen eta izapidetzen diren azaltzea.
- EI1.3 Produktuak lonjara dakartzaten garraibide desberdinen eta deskargatzen diren espezie garrantzitsuenen berezitasunei antzematea, harrera eta deskarga antolatzeke.

A2: Hartutako produktua merkaturatzeari dagokionez, lonjaren antolamenduari zerikusia duten funtzioak deskribatzea.

- EI1.4 Lonjaren antolamenduaren arduradunak egunero zer informazio bildu behar duen azaltzea, hartutako produktua kantitateen, jatorriaren eta libre dagoen tokiaren arabera banatzeko.
- EI1.5 Hartutako produktuari zer zaintza- eta kontrol-sistema aplikatu behar zaizkion deskribatzea, haren osotasuna eta ondorengo merkaturatzea bermatzeko.
- EI1.6 Lonjan produktua banatzeko tokietako "txandakako ordena" kontzeptua azaltzea.

Edukiak:

1. Lonjako arrantza-produktuei buruzko dokumentazioaren kudeaketa.

- Garraioa. Gidak. Idazpenak. Emate-agiriak. Osasun-ziurtagiriak. Errotulazioak. Etiketatzea.
- Lonja. Erregistro-liburuak. Kontrol-liburuak.
- Enpresa. Osasun-erregistroa. Erregistro administratiboa. Erantzukizunak.

2. Arrantzako produktuen segurtasun eta higienari buruzko araudiaren garapena.

- Garraibideak eta edukiontzi-motak.
- Garbiketa.
- Temperatura.
- Salbuespenak
- Debekuak.

3. Itsas espezieen biologia eta arrantza-ahaleginari buruzko legedia.

- Espezieen identifikazioa eta sailkapena.
- Arrantza-ahalegina arautzeko araudia: Tamaina minimoak. Debekualdiak Geldialdi programatuak.

4. Lonjako zamaketarekin erlazionatutako funtzioen deskribapena.

- Portuko polizia. Zainketa-lanen funtzioak. Atrakatzeeen planifikazio-orria.
- Saltzaileak. Produktu-kantitateak eta -motak. Espazioen txandakako ordena

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauekoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.

- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
 - Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Lonjen antolamendua.